



Gipuzkoako Bazkondeak "GKo" izendatu du 2013ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa bezala

- *GKo artearen sormenerako eta produkziarako enpresa komertziala da eta Tolosan sortu zen orain 5 urte.*
- *10 bitxiak kategoria berrian Gipuzkoako enpresa komertzial nabarmenenak saritu dira, lurraldeko bitxi komertzialen mapa sortuz.*
- *Sari banaketa ekitaldia bart burutu da Gipuzkoako Bazkundeko egoitzan. Ekitaldia **LABORAL Kutxak** y **Euskaltelek** babestu dute.*

Donostia, 2013ko azaroak 29. Tolosako **GKo** enpresa komertzialak 2013ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria eskuratu du. Gipuzkoako Bazkondeak banatzen dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien XXI. edizioan jaso du saria. Sari Banaketa ekitaldia **LABORAL Kutxak** eta **Euskaltelek** patrozinatu dute eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Dinamizaziorako Bulegoen laguntza izan du.

GKo, artearen sormenerako eta produkziarako enpresa komertziala da, Show Room bat da. Euskal Herrian eta Chilen proiektu ezberdinak garatzen ari den enpresa. GKok 2008an hasi zuen bere lana, kezka berdinak eta etorkizun profesional berria bat sortzeko nahia zuten sortzaile ezberdinen arteko topaketa batetatik. Proiektua Arte Urbanoko galeria baten irekierarekin gauzatu zen, Euskal Herriko lehenengotakoa eta Tolosako lehenengoa.

Bost urtetan zehar formato ezberdinetako hainbat proiektu burutu ditu eta artearen eta kulturaren hedapena sustatu du, artista, gizarte eta instituzioen artean ezagutza eta esperientzien elkartrukea bultzatu duen bezalaxe.

GKok artisten arteko interakzioa eta ingurunearekiko komunikazio iraunkorra bilatzen du. Dendan, gaur egun, euren diseinuak eta arropak erakusgai dituzten sortzaile ezberdinekin lan egiten da. Honek euskal artisten lanak eskaintzeko aukera ematen duelarik. Disenatzaile abangoardisten arropekin, osagarriekin, objektu eksklusiboekin eta mugatutako edizioekin komertzializatzen da.

Garikoitz C. Muruak bideratzen duen GKo proiektua, disenatzaileen eta euskal sortzaile gazteen produktuen salmenta sustatzeagatik izan da saritua eta baita nazioartean lortu duen entzuteagatik ere. Une honetan bere bezero garrantzitsuenak Luxenburgokoak, Holandakoak eta Ingalaterrakoak dira, eta horrez gain, Europa eta Latinoamerikako

artista ezberdinen lana kudeatzen du. Bi kontinenteen arteko, proiektu eta esperientzia artistikoen topaketetan eta elkartrukean datza bere lana, Tolosako herriarentzat erakarpen puntu bat izanik. Aipatu beharreko beste ezaugarrietako bat berrikuntza da, GKO komertzio era berri bat da, pop-up izeneko komertzio bat da, une honetan munduan dagoen salmenta teknikarik berritzaileena.

"10 bitxiak"

Edizio honetan Gipuzkoako Bazkondeak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Dinamizaziorako Bulegoekin egin du lan, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak partehartzailegoak eta gertugokoak bihurtuz: Gipuzkoako sariak.

Horrela, "10 bitxiak" deituriko kategoriak Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa nabarmenenak saritzen ditu, hamar merkataritza bitxien mapa bat osatuz lurralde guztian zehar. Aurten saria elikadura sektorean zentratua egon da.

Kategoria berri honek berezitasun bat du: sarituak eskualde bereko merkatoriengatik hautatuak izan dira. Eta hautaketa honen emaitzak hauek izan dira: Deba Garaia eskualdekoek **Arrasateko Landaluze Harategia** saritu dute. Urola Garaikoek **Zumarragako Rueda Frutadenda**. Debarrena eskualdekoek **Eibargo Oberena Harategia** eta Bidasoaldekoek **Irungo Solbes Gourmet** saritu dute, **Donostian BretxaOliva** saritu duten bitartean. Donostialdean berriz, **Astigarragako Mamen Janaridenda** saritu dute eta Goierrri aldean **Segurako Ondarre harategia**. Oarsoaldea eskualdean **Pasai Antxoko June Etxea** saritu dute eta Tolosaldea eskualdekoek **Tolosako Super Eko**. Urola eskualdekoek, azkenik, **Zarautzko Lukas Delicatessen** saritu dute.

Eskualdeko merkataritzaren ezaugarri diren balore, irudi eta prestigioa adierazten dutelako saritu dituzte merkataritza hauek guztiak "10 bitxiak" sariekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347